

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko apirilaren 16an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

TOKIKO MONETA SOZIALAREN ERABILERA SUSTATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Hernaniko Udalak, Ekhillur Kooperatiba elkarteko bazkide laguntzaile izan eta Ekhi moneta soziala martxan jartzeko akordioa hartu zuen 2021eko otsailaren 23ko osoko bilkuran. Ekhi moneta sozialaren erabilera lagungarria izango da Hernanin %100 tokiko merkataritza, ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko.

Hernaniko Udalak LANKIDETZA DIRULAGUNTZA HITZARMENA proposatzen du ondorengo helburuak lortzeko:

- 1- Herrian zirkuito ekonomiko itxia sortzea, tokiko ekonomia eta merkataritza indartzeko.
- 2- Herritarren erosketa ohiturak aldatzea, erosketak herrian egite sustatuz, ekonomia jasangarria bultzatu ahal izateko.
- 3- Komunitatea indartzea (herritarrak, enpresa txikiak-ertainak, Udala...), lehiatu beharrean, inguruko bizitza soziala eta ekonomikoa hobetzen lagunduaz.
- 4- Hurbiltasun-ekonomia indartzea, ikuspegi solidariotik, gizarte-ongizatea eta justizia ekarriko duten balioak hobaritu eta sustatuz.
- 5- Udalerriko hiri ekonomia dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez.

Bi aldeek bat egiten dute ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko jardunean, toki ekonomia indartzeko tresna gisa.

Bi aldeek egoki ikusten dute tokiko moneta sozialaren erabilera sustatzea, kasu honetan Hernaniko Ekhi moneta sozialaren erabilera.

Era berean, 2024 urteko jarduera-planari lotutako justifikazioa egiteko memoria eta dokumentazioa aurketu du Ekhillur Kooperatiba elkarteak.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostena.

Ikusita Kontu Hartzialearen txostena

Kontuan hartu da Tokiko Garapen batzordeak 2025eko apirilaren 10eko bilkuran GEHIENGOZ emandako irizpena

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak gehiengoz **erabaki du**

1. 2024 urteko justifikazioa ontzat ematea eta azken ordainketa egitea (22.000 €).
2. Tokiko moneta sozialaren erabilerarako Lankidetza Dirulaguntza Hitzarmena onartzea, Ekhillur kooperatiba elkartearen alde.

Epea: 1 urte (2025/12/31)

Kontusaila: 1 1520.481.03.431.00 2025 Dirulaguntza Ekhillur Hitzarmena

Kreditua: 55.000,00 €

3. Lankidetzaren Dirulaguntza Hitzarmen honen berri ematea BDSN-n eta lehen ordainketa egitea: 33.000€ (% 60).

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorriz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkeztu dezakezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko apirilaren 16an
Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiaztatzea dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza elektronikokoaren bitartez

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

